# Urte askoren osteko lanak










Erein argitaletxeak hainbat liburu interesgarri plazaratu ditu azken asteetan. Interesgarriak direla esateko orduan autoreei erreparatu beharko diegu, bai eta autore horien produkzioari ere.

**50 urte geroago**

Lehenik eta behin, eta bereziena delako, Ramón Saizarbitoriak idatzitako *Ene Jesus* izenekoa aipatu behar da. Ereinek *50 urte. Edizio eguneratua* izenburupean argitaratu du. Izan ere, *Ene Jesus* liburuak 1976an ikusi zuen argia, eta egilearen hirugarren nobela izan zen, *Egunero hasten delako* eta *Ehun metro* lan ezagunen ostean. Sekulako ahalegina esku zion nobela hunkigarria, nobela ahaztezina idatzi zuen Ramón Saizarbitoriak, eta argitaratu ondoren, Saizarbitoriak hemeretzi urte pasatu zituen nobelarik plazaratu gabe.

Ibon Sarasolak, garai hartako kritika batean honako hau esan zuen lan berriaz: "*Ene Jesus*, gauza ororen gainetik idazle sentitzen den eta bere eginbidean duen erantzukizun larriaz oharturik jabetzen den gizon baten obra da, hitz bakoitza esaldi bakoitzean, esaldi bakoitza pasarte bakoitzean eta pasarte bakoitza nobelaren osotasunean tankeratzen, pisatzen eta neurtzen bi urtez egunero hainbat orduz jarduteko bezain zoroa eta zuhurra den nobelagile militante baten erantzuna edo protesta. Literaturazale izatea ez da mundu honetan irits daitekeen bertuterik garaiena, baina bekatu ere ez da. Eta, ez gaitezen engaia, literaturazale egunero literatur liburuen bat eskuartean duena da, literaturari (eta egungo literatura, Jainkoari eskerrak, Hego Amerikakoa baino zerbait gehiago da) jarraitzen zaiona, hitz batez, literatura asko irakurtzen duena. Eta euskaraz ez dakitenek ulertzeko eran mintzatzen, irakurtzen ez dutenentzako mailan idazten, literatura bost axola zaienen txaloa jasotzeko moduko literatura egiten gure indarrik gehienak hondatzen ditugun herri xelebre honetan guztiz arraroa gertatzen bada ere, Saizarbitoriak munduko gauzarik logikoena besterik ez du egin: nobela bat nobelazaleentzat idatzi".

**Hamasei urte geroago**

Amaia Lasak *Lur arrotzak* izeneko poemarioa argitaratu du. Bere azken lan poetikoak duela hamasei urte ikusi zuen argia, horregatik da interesgarria ekoizpen berri hau, denboraren iragateak bestelako ikuspuntua bat ematen baitio poetari, bestelako eskarmentua, bestelako parametroak.

Bere lan batzuek urteak dituzte: *Poema bilduma* (1971), *Hitz nahastuak* (1977), *Nere paradisuetan* (1979), *Malintxearen gerizpean* (1988) eta *Barne iraultzen loraldia* (2016). 2000. urtean EHUk ordura arteko poesia bildumak argitaratu zizkion *Geroko aurpegia* izenburupean. Geroago, 2001ean, Koldo Izagirrek Lasaren poemen antologia argitaratu zuen, *XX. mendeko poesia kaierak bilduman.* Eta orain dator lan berria, poemak idazteari ez baitio Amaia Lasak utzi.

Argitaletxearen hitzetan, Amaia Lasaren bilduma honek itsasoaren sakonetik gizartearen zaurietaraino hedatzen den ahots poetikoa eskaintzen du. Poema hauek bidaia dira: erbestea, memoria, identitatea, mina eta itxaropena gurutzatzen dituzten paisaia fisiko eta emozionaletan barrena. Irudi indartsuz eta sentipen biziz, irakurleak mundu zatitu baina zauri berberek lotua aurkituko du.

"Hilobi erraldoia bat besterik ez zara/ paradisuak laztantzen dakizun/ itsaso urdina.

**Ia hamar urte geroago**

Beste aldetik, Juan Luis Zabalak *Agerre* kontakizuna plazaratu du. "Elkarren artean gurutzatzen dira aitaren eta alabaren arteko distantziak, iragan politikoa eta gizartearen zauri kolektiboak, eta agerian uzten dituzte pertsonaien barruko ahotsak. Istorioak denboran zehar egiten du jauzi, oroitzapenek eta gogoetek gidatuta, eta pixkanaka doaz osatzen pertsonaien harreman sare konplexua, tentsioz eta ñabarduraz beteriko paisaia emozional batean", azaldu dute argitaletxeko kideek.

Juan Luis Zabala idazle porrokatuenetako bat, produkzio handikoa, izan ere, hogei titulu baino gehiago ditu plazaraturik euskal literaturan. Poesia lan ederrak kaleratuak ditu, azkena, *Mina hartzeko ere* (2022, Susa). Bere azken lan narratiboa, aldiz, 2017an plazaratu zuen: *Ospa* (2017, Susa).

> **Erein argitaletxeak hainbat liburu interesgarri plazaratu ditu azken asteetan**

**Juanra Madariaga**

---

# 'Persépolis': memoria, identidad y revolución

La muerte de Marjane Satrapi ha provocado una conmoción que trasciende el ámbito de la novela gráfica. No desaparece únicamente una autora de éxito ni una intelectual comprometida; se va una de las voces que mejor supo transformar una experiencia personal en una obra de alcance universal. Para millones de lectores, *Persépolis* no fue solo un libro sobre Irán. Fue una historia sobre la infancia, la libertad, la identidad y el exilio. También fue la demostración de que un cómic podía alcanzar la profundidad emocional que, tradicionalmente, se asociaba a la gran literatura.

Nacida en Teherán en 1969, Satrapi vivió la revolución iraní y la guerra entre Irán e Irak antes de ser enviada a estudiar a Europa. Aquella experiencia de desarraigo marcaría toda su obra. Instalada en Francia, encontró en el dibujo y en la autobiografía una forma de narrar una experiencia individual que acabaría adquiriendo una dimensión colectiva. Algunas críticas han cuestionado la imagen de Irán que transmite *Persépolis*, pero la fuerza del libro no reside en su voluntad de representar un país entero, sino en la capacidad de convertir una memoria personal en una historia reconocible para lectores de cualquier lugar.

Publicada entre 2000 y 2003, *Persépolis* narra el paso de una niña curiosa y rebelde a una mujer obligada a convivir con la represión política, la guerra y el exilio. Con un dibujo aparentemente sencillo, construido en un expresivo blanco y negro, Satrapi logró una obra de enorme eficacia narrativa. El libro fue traducido a decenas de idiomas (también al euskera) y alcanzó lectores muy alejados del contexto iraní. Su éxito internacional, y su posterior adaptación cinematográfica, confirmaron el alcance de aquella historia.



¿Por qué impresionó tanto *Persépolis*? Quizás porque consiguió transformar un conflicto geopolítico en una experiencia humana. Muchos lectores conocieron la realidad iraní a través de las dudas y contradicciones de una adolescente. La importancia de *Persépolis* reside, además, en su contribución a la legitimación cultural de la novela gráfica. Antes existían obras fundamentales como *Maus*, de Art Spiegelman, pero el libro de Satrapi llegó a un público más amplio y consolidó la idea de que las viñetas podían ser un vehículo privilegiado para la memoria, la reflexión y la creación literaria.

Tras *Persépolis* publicó *Bordados* y *Pollo con ciruelas*, además de desarrollar una destacada carrera cinematográfica. Sin embargo, su legado principal sigue siendo aquella obra que ayudó a derribar prejuicios sobre un país, sobre un medio artístico y sobre la propia autobiografía.

Por eso, su muerte nos entristece. No solo despedimos a una autora admirada. Reconocemos también que *Persépolis* pertenece ya a ese reducido grupo de obras que sobreviven a modas, géneros y fronteras para convertirse, sencillamente, en literatura. Su mayor logro fue demostrar que una voz profundamente personal puede alcanzar una resonancia universal.

**Mariasun Landa**